



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2023ko abenduaren 5a


<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Edna O'Brien

(Tuamgraney, Irlanda, 1930)

Edna O'Brien irlandar eleberrigileak farmaziako ikasketak egin zituen, eta farmazialari gisa lan egin zuen hasieran. 1960an argitaratu zuen lehenengo eleberria: *The Country Girls*, trilogia bateko lehenengoa. Trilogia osatu zuten beste bi liburuak *Girl with Green Eyes* (1962) eta *Girls in Their Married Bliss* (1964) dira. Eleberri horietan esperientzia berriak eta bizitzaren gozo-mikatzak probatzera ausartzen diren emakumeen gorabeherak kontatzen dira. Lan horien ondoren ere, Edna O'Brienek emakumeen barne-gatazkez eta gizon eta emakumeen arteko hartu-emanek eta arazoez idazten jarraitu zuen.

Landa aldeko neskak



erabakitako moduan bizitzeko.

Nobela honek XX. mendearen erdialdeko landa-giroan jaiotako bi neskatilaren abenturak kontatzen ditu, haietako baten ahotik eta ikuspegitik, modu xume eta errealista batean. Caitheen eta Baba dira protagonistak, umetako lagun bi, ezin diferenteagoak biak. Caitheen baserrian bizi da, etxeko diru-sarrera apurrak jokoan eta edanean xahutzen dituen aita alkoholikoarekin, eta etxea ahal duen moduan gobernatzen ahalegintzen den ama nahigabetuarekin. Baba, bestalde, herriko albaitariaren alaba da, neskato harroputz eta berekoia, etengabe Caitheen mespretxatzen dabilena. Batzuetan etsai, besteetan lagun min, biek ala biek desio bat dute: sorterritik hanka egitea, gizarteak ezarria dien patuari uko egin eta beraiek

Caitheen eta Babaren bidez, O'Brienek bozgorailua jartzen die urteetan isilaraziak izan ziren irlandar emakumeei, eta haien bitartez esperimenta dezakegu sasoi hartako bizilege klaustrofobikoa. Badirudi protagonistak jakitun direla gizarteak inposatu dizkien rola ez direla eraikuntza bat besterik, eraikuntza bat Estatuarena, non Elizaren eta patriarkatuaren arau zurrunez tankeratzen, mugatzen eta erreprimitzen baitute emakumezkoen identitatea. O'Brienek, bere lehen nobela honekin,

feminitatearen kontzeptua, amodio erromantikoaren mitoa eta gizarteak ezarritako rola deseraikitzen ditu.

Edna O'brienen argitalpenak (hautaketa)

Landa aldeko neskak (1960) **N OBR**
Girl with Green Eyes (1962)
Girls in Their Married Bliss (1964)
August Is a Wicked Month (1965)
Casualties of Peace (1966)
The Love Object (1968)
A Pagan Place (1970)
Night (1972)
A Scandalous Woman and Other Stories (1974)
Mother Ireland (1976)
Mrs Reinhardt and Other Stories (1978)
Returning (1982)
The High Road (1988)
On the Bone (1989)
Lantern Slides (1990)
Time and Tide (1992)
Down by the River (1996)
Wild Decembers (1999)
In the Forest (2002)
The Light of Evening (2006)
Country girl, memoir (2012)
The Little Red Chairs (2015)
Girl (2019)

Kritikak esandakoak

“Landa aldeko neskak 1960an idatzi zuen O'Brienek, 30 urte zituenean. Liburu honekin ireki zuen autoreak bere ibilbide literario luzea —30 liburu inguru idatzi zituen—, askoren lehena izan zen Gema Lopez Las Herasek euskarara lehen aldiz ekarri duen hau. Ondo ekarri ere.

Protagonistak beraien artean oso desberdinak diren bi neska dira. Caitheen baserritarra da eta etxeke giroa aita alkoholiko eta biolento batek inposatzen du. Ziurrenik horregatik adierazten du hasieratik bere aske izateko nahia —25.orrria: “Kanpora atera nintzen liliak batzera. Harmailetan gelditu nintzen zelaietara begira, eta, betiko moduan, askatasun eta gozamenezko ufada bat sentitu

nuen...”—. Baba al baitariaren alaba da eta maiz mespretxuz hitz egiten dio lagunari, harro jokutzen du berarekin. Hala ere, lagunak dira eta liburuan elkarrekin egingo duten bidaia kontatuko zaigu. Komentu batean barneko ikasle gisa sartzen dituzte eta bertatik ateratzeko trikimailuak asmatu beharrean daude.

Espazioek ere berebiziko garrantzia dute liburuan. Hasierako herria txikia da. Denek ezagutzen dute elkar eta moral kolektibo oso zehatza dago ezarrita. Txutxu-mutxuek, esamesek eta aurreiritziek pisu handia dute herrian eta pertsonaien nortasunean. Landa eremua espazio itogarria da bi emakume hauentzat. Komentua irlandar jendartearen zurruntasun erlijiosoaren isla da eta beste behin patriarkatuak emakumeentzat duen rola erakusle bihurtzen da espazioa. Hiria, Dublin, askatasunaren sinbolo da, ordea. Aukera berrien espazioa. Gustura irakurri dut hirira alde egiteko hautua egiten duten emakumeen istorio hau, beraien kontzientziak eta argitasunak hasieratik harrapatu bainau.

Landa aldeko neskak eleberri gisa idatzi eta argitaratu zen garai hartan, baina gaur egun badakigu kontakizunak autorearen bizitzako pasarteak dauzkala. Trilogia beste bi liburuk osatzen dute: The lonely girl eta Girls in their married bliss. Garaiko kritikari ez zitzaion proposamena batere gustatu; izan ere eliza katolikoak Irlandan zuen boterea eta emakumeen gaineko kontrol izugarria salatzen du. Herriko apaizak hainbat ale erre zituen plazan eta zentsuratu egin zuten O'Brienen eleberria. Eskandalua sortu zuen... Eta guri gustatu.”

Ainhoa Aldazabal Gallastegui / Argia, 2022-04-17

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Edna_O%27Brien

Kritiken hemeroteca

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8547>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8511>